

artikulu nabarmenak
artículos destacados



azaroa



Luna, Francisco. Jugar y cooperar contra el acoso escolar.

Elkarrizketa Euskal Herriko Unibertsitateko psikologiako irakasle Maite Garaigordobilekin, ikastetxeetan jazarpena ezabatzen lagun dezaketen estrategiei eta jokoari buruz. Aditu honen iritziz, eskola-jazarpena gizarte-klase eta herrialde guztietan gertatzen da, eta ezin da bazter utzi. Bere ustez, beharrezkoa da gizarte-jokaera positiboa lantzea, indarkeria erotik kentzeko, eta muina elkarlanean oinarritutako jokoetan duten ekintza-proposamenak eskaintzen ditu. Lehen Hezkuntzan ez ezik, nerabeekin ere erabiltzeko.

Cuadernos de Pedagogía, 417. zk., 2011ko azaroa, 44-49 or.



Williams, Lela Rankin, Hickie, Kristine E. "He cheated on me, I cheated him back": Mexican American and White adolescents' perceptions of cheating in romantic relationships.

Metodologia kualitatiboa erabili da ikerketa honetan nerabeen arteko harreman erromantikoetako engainuen esanahia eta pertzepzioa aztertzeko. AEBetako nerabe mexikarrak eta zuriak elkarrizketatu ziren (N = 75; %53,3 neskak; &56,1, mexikar jatorrikoak), generoko eta etniako bereizita. Hamabi eztabaida-talde osatu ziren (hiru talde, mota bakoitzeko), eta tartean bikote-harremanetako engainua zegoen esperientzien inguruan eztabaidatu zuten -norberaren esperientziak nahiz besterenak, biktima zein egile izan-. Elkarrizketen ondorioz, bi gai zabal zehaztu dira, azpian sei gai dituztenak: 1) Engainuaren pertzepzioa, norbakoarengana, parekoarengana eta engainuaren maiztasunera bideratua; eta 2) engainuaren ondorioak, konpromisora, emozioen erantzunera eta harremanaren emaitzetara bideratua. Jatorri mexikarrek neskak maiztasun eta bizitasun handiagoz mintzatu ziren engainuari buruz, eta, ondoren, neska zuriak. Engainuaren esanahiak eta testuinguruak eragin garrantzitsuak dituzte nerabezaroan jokabide osasungarriak sustatzeari dagokionez.

Journal of Adolescence, 34. lib., 5. zk., 2011ko urria, 1005-1016 or.



¿Jugamos?

Jokoak astialdiko heziketaren funtsezko tresna gisa duen garrantziari buruzko dossier monografikoa. Jokoak hezteko duen balioari buruz gogoetatzeko gonbita egiten du, ez haurrentzat bakarrik, baita gazteentzat eta, areago, helduentzat ere.

Honako atalak ditu: Jokoak hezteko duen balioa; Dantza-bikoteak; Balioekin jolasean; Elkarlanean aritzeko jokoak; Enigmak; Jokoa eta beldurra; Inguruan...; Bakearen aldeko jokoak; Jokoa eta dantza: hezteko bikotea; elkarlan-jokoan zentroak eta baliabide erabilgarrien zerrenda.

Monitor educador, 147. zk., 2011ko iraila-urria, 10-21 or.